

2015

FESTAK

2015ean zehar, Festak unitateak ehun jardueratan baino gehiagotan hartu zuen parte, Donostiako hainbat elkarte eta erakunderekin batera. Horiek ere urte osoan zehar aberastu zituzten jai-programak beren ekarpenen bidez.

Hain zuzen ere, Danborrada, Kaldereroak, Santa Ageda, Inauteriak, Aste Nagusia edo Santo Tomaseko festei dagozkien programetan, ekarpen handiak egin ziren Donostiako auzoetatik, festak hiri-ereditik harago hedatzen baitira, giro hurbilago eta auzokoagoan.

Unitateak modu aktibo eta erabakigarrian hartu zuen parte udal kultura berri bat ezartzen kaleko jardueretarako baimenak emateari dagokionez, aribide sinpleagoa herritarrentzat, eta arinagoa baimenak ematen dituzten udal eragileentzat berentzat.

Seigarren urtez jarraian, Olatu Talka Jaialdi Amateurrean hartu zuen parte, Donostia 2016ko jardueren barruan, ekile jardunez programaturiko jarduerak ondo atera zitezten.

Hori guztia egitean, kontuan izan zituen euskarako, generoko, jasangarritasuneko eta irisgarritasuneko udal politikak, besteak beste.

ERREGE MAGOAK

Su-hiltzaileen egoitzan gau horretan etxe guztietara iritsi ahal izateko azpiegitura guztia prest zegoela egiaztatu ondoren, Erregeak Udalera joan ziren su-hiltzaileen kamioi batean, eta han, 15:30etatik aurrera, beren gutunak entregatzera etorritako haur guztiak hartu zituzten. 18:00etan abiatu zen desfilea, eta hiriko erdialdeko kaleetan barrena ibili zen. Desfilea amaitu ondoren, eta ohi bezala, Rezola eta Villa Sacramentoko gerontologia-zentroak bisitatu zituzten.

ERREGE MAGOEN DESFILEA

Taldeak	22
Parte-hartzaileak	600dik gora
Gizonezko-emakumetan banatuta	% 74 emakume / % 26 gizon
Karrozak	4
Gozokiak	1.600 kg (egokiak zeliakoentzat ere). Harreran, baziren diabetikoentzako gozokiak ere.

Gainera, Erregeek Altzako auzoa bisitatu zuten, eta han Harria parkera hurbildu ziren haur guztiak hartu zituzten.

HAUR DANBORRADA

Haur danborrada urtarrilaren 16an aurkeztu zen, ostiralarekin, eta Victoria Eugenia Antzokian egindako festa handi batean, non konpainia guztietako ordezkariak hartu baitzuten parte, bai eta karrozan desfilatzen duten pertsonaiek ere.

Oihane Bolado danbor nagusiak zuzenduta, haur guztiek jo zituzten hamabi-hamabietan San Sebastianen martxa eta jatorrizko zortziko-martxa; ondoren, desfilatzeari ekin zioten, Donostiako erdialdeko kaleetan barrena.

Desfilea ixten, karroza, eta bertan ordezkaturik, XIX. mendearen hasierako gizarte zibileko pertsonaiek

HAUR DANBORRADA

Parte hartu zuten ikastetxeak	43 ikastetxe
Konpainiak	50
Parte hartu zuten haurrak	4.643
Gizonezko-emakumetan banatuta	% 53 neskato / % 47 mutiko
Danborradako pertsonaiek	La Anunciata ikastetxea
Danbor Nagusia	Arantzazuko Ama Ikastola
Ikusleen zenbatespena	30.000-35.000 lagun

7.034 parte-hartzaile, kontuan izanik ikastetxeek auzoetan egindako haur-danborradak.



HELDUEN DANBORRADAK

Urtarrilaren 20ko 00:00etan, alkate jaunak Donostiako bandera altxatu zuen Jatorra danborradako ordezkariak ikurrina altxatzen zuten bitartean.

Jatorra klubeko danborrada da jubilatuek osatutako danborrada bakarra; urtez urte frogatzen du gure nagusiek ere badakitela festaz gozatzen eta festan parte hartzen.

Danborraden 87 ordezkariak jo zuten Martxa Gaztelubide elkarteko danborradarekin batera. Easo abesbatzak kantatu zuen Martxa, gonbidatua izaki sortu zeneko 75. urteurrena betetzen zela eta.

HELDUEN DANBORRADAK

Danborradak guztira	128
Berriak	1 (mistoa)
Osaeraren arabera banaketa	Mistoak % 93 / % 7 gizonaenak
Parte-hartzaileak guztira	15.459

Bandera jaistea Unión Artesana elkarteak egin zuen, eta halaxe amaitu zen ospakizunez beteriko eguna.

BERTSO EGUNA

Urtarrilaren 31n, larunbatarekin, Bertso Egunaren 46. edizioa egin zen. Programaren osagarri, bertsolariek Parte Zaharreko kaleetan kantatu zuten eguerdiko 12etatik aurrera. Ekitaldi nagusia Kursaal auditorioan egin zen. Hara bildu ziren 12 bertsolari, **Jolastu nahi?** proposamenari erantzuteko.

DONOSTIAKO KALDEREROAK

Otsailaren 7an, harrera egin genien ijito tribuei, Hungariatik etorri baitzitzaizkigun Inauteria aurki hemen dugula iragartzera.

PARTE ZAHARREKO KALDEREROAK

Tribuak	19
Partaide kopurua	370 (% 55, emakumeak)

AUZOETAKO KALDEREROAK

Konpartsak	17
Partaide kopurua	5.648

INUDEAK ETA ARTZAINAK

Otsailaren 8an, Kresala elkarteko konpartsak desfilatu zuen Parte Zaharreko kaleetan eta Boulevardean. Orobat, otsailaren 14an, larunbatarekin, Antiguotarra Dantza Taldea Antiguako kaleetan zehar ibili zen, eta 22an igandearekin, Ikasbide Guraso Elkartek zapaldu zituen Amarako eta Loiolako Erriberako kaleak.

INUDE ETA ARTZAINAK

Auzoetan

4

INAUTERIAK

Otsailaren 12tik 16ra bitarte izan ziren. Euriak desitxuratu zuen larunbateko desfilea, eta igandean konpartsa guztiak erakutsi ahal izan zuten, jendetza handiaren aurrean, jantzi, koreografia, karroza eta abarretan egindako lana.

Oliber Nestar Olmosek Momo jaingo koloretsu bat haragiztatu zuen, uneoro bere segizioa lagun zuela: Miriam López, Maiara Domínguez eta Eli Garzo, denak ere Eureka konpartsakoak.

DONOSTIAKO INAUTERIAK

Konpartsak	26
Partaide kopurua	2.390 (% 84, emakumeak) 1.069 neskato 129 mutiko 940 emakume 252 gizon

INAUTERIAK AUZOETAN

Konpartsak	15
------------	----

Altzak eta Bidebietak ere ospatu zituzten Inauteriak, zenbait jarduera programatuz hartarako.

SAN JOAN BEZPERA

Ekainaren 23an, astelehenarekin, arratsaldeko 7etan eta Konstituzio plazan, Goizaldi dantza taldeak San Joan zortzikoa dantzatzeari ekin zion. Felix Garitano parrokoak zuhaitza bedeinkatu ondoren, Udaltzatzak agintarien Esku dantzan egin zuen.

Auzo askok ospatu zuten San Joan bezpera suteak piztuz: Altza, Amara Berri, Amara Zaharra, Antigua, Antigua-Lo-rea, Ategorrieta, Bidebieta, Gros, Herrera, Igeldo, Intxaurrondo Iparra, Loiola, Martutene, Morlans, Oleta, Loiolako Erribera, Txomin eta Ulia.

ASTE NAGUSIA

396 jarduera, era guztietakoak eta era guztietakoentzat: horiexek osatu zuten jai-programa, abuztuaren 8tik 15era bitarte.

Sortu zireneko 75. urteurrena zela eta, Ama Birjinaren Eskola Elkarte eta Easo Abesbatza arduratu ziren jai-er- siera emateaz, "Artillero" kantatuz eta joz.

ASTE NAGUSIA (ABUZTUAREN 8TIK 15ERA)

Ikusleen zenbatespena	1.050.000
Agertokiak	23
Jarduerak	396

ASTE NAGUSIKO SARIAK

Herri kirolak

Urrezko Kopa	Aitzol Atutxa
Igeldoko Harria	Jokin Eizmendi

VII. Marmitako lehiaketa

Xabier Mendizabal eta Alejandro Mendibil

Gazteentzako gastronomia-lehiaketa hemengo produktuekin

Julen Arregi eta Ander Muñoz "Aitzol & Edorta Food"

SU FESTEN NAZIOARTEKO 52. LEHIAKETA JAIALDIA

7 pirotekniak (4 Espainiakok eta 3 atzerrikok) hartu zuten parte lehiaketan; gauez gau, jendetza handia bildu zuten. Ricasa pirotekniak eskainitako ikuskizun piromusikal batek eman zion amaiera Asteari, oso maila handiko saioez gozatu eta gero.

SU FESTEN NAZIOARTEKO 52. LEHIAKETA JAIALDIA (Abuztuaren 9tik 16ra)

Ikusleen zenbatespena	650.000
Parte hartu zuten pirotekniak	Valenciana (Valencia), Firevision International (China), Tomás (Castellón), Parente Fireworks (Italia), Valecea (Araba), Brezac Artifices (Francia), Europlá (Valencia)
Sarituen zerrenda	Urrezko Maskorra: Europlá (Valencia) Zilarrezko Maskorra Ex-aequo: Parente Fireworks (Italia) – Valenciana (Valencia) Herri Epaimahaiaren Saria: Europlá (Valencia) Gazteriaren Saria: Europlá (Valencia)

EUSKAL JAIK

69 jarduera euskararen eta euskal kulturaren inguruan, irailaren 3tik 13ra bitarte programatuak adin guztietako herritarrentzat: herri-kirolak, musika, folklorea, dantza-lehiaketa, bertako produktuen azoka, haurrentzako jarduerak...

Aurten, euriak Aste Nagusian bertan behera uztera behartu zuenez, Txistularien Alardea irailaren 12an egin zen, Konstituzio Plazan.

DONOSTIAKO ESTROPADAK

Estropadak, emakumeena eta gizonezkoena, egun beretan egin ziren: sailkatzekoa, irailaren 3an; eta bi igandee-tan, 6an eta 13an.

Ciudad de San Sebastián katamarana izan zen sariak emateko aukeratutako lekua, Donostiako kaian kokatuta.

DONOSTIAKO ESTROPADAK (IRAILAREN 3,6 ETA 13AN)

Ikusleen zenbatespena	35.000 lagun eguneko
-----------------------	----------------------

Kontxako VIII. Bandera (emakumeentzat)

Traineru parte-hartzaileak	12
Sailkatuak	San Juan Iberdrola, Hibaika Jamones Ancín, Zumaia Salegi Jatetxea, Orio Babyauto

Irabazlea	San Juan Iberdrola
-----------	--------------------

Gizonezko Kontxako Bandera

Traineru parte-hartzaileak	25
Sailkatuak	Bermeo Urdaibai Avia Enagas, NT2 Hondarribia, Orio Babyauto, Kaiku Producha, Sanpedrotarra A.E. Ecolmare, Tiran-Pereira-O Pirata.com, San Juan Iberdrola, Donostiarra

Irabazlea	Bermeo Urdaibai Avia Enagas
-----------	-----------------------------

SANTO TOMAS FERIA

Txistorra, taloak, eskulanak, kontserbak, gazta, ogia, ezti... hainbat postutan, 233 guztira, eta gainera jardueraren programa ondo osatu bat: ohiko lehiaketak –txistorrarena, txorimaloena, fruta eta berdurena, eta eztiarena–; abere-erakusketa, haurrentzako tailerrak eta jolasak. Horiei guztiei esker, jendetza handia bildu zen, eta batzuetan muku bete zituzten gune batzuk, egun osoan trikitixa-eskolek giroa alaitzen zutela.

Berritasun gisa, Santo Tomas Feriako esku-pilotako dema izan zen Trinitate plazan; hantxe izan ziren Iparraldeko jokoak, enbor-mozketa eta zerra-proba, hala gizonezkoentzat nola emakumeentzat.

2015ean, zortzi auzok hartu zuten parte ferian, zenbait jarduera antolatuz: Antigua, Amara Berri, Amara Zaharra, Gros, Ibaeta, Intxaurren, Loiola eta Morlans.

SANTO TOMAS FERIA (ABENDUAREN 21 EAN)

Ikusleen zenbatespena	70.000 lagun
Postuak	233
Urdemea	Izena: Engraxi Procedencia: Leiza Pisua: 333 Kg.



OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Olentzero eta Mari Domingi menditik jaitsi ziren eta, trikitixaren doinupean, bastoiak eta kriskitinak lagun, Konstituzio plazara hurbildu ziren, agurtzera eta gutuna ematera etorritako haur guztiei harrera egitera. Bien bitartean, Eskola eta Gero Axular dantza-taldeek jardun zuten plaza hartan; besteak beste, baserritar-jantziaren painelua behar bezala jartzeko tailer bat eta marrazki tailer bat emanaz, eta horrekin batera gaztaina erreak jan ahal izan zituen jendeak.

18:00etatik aurrera, Olentzero eta Mari Domingi erdialdeko kaleetan barrena ibili ziren karrozan, artzainak, galtzagorriak eta abar lagun zituztela.

OLENTZERO (ABENDUAREN 24AN)

Parte-hartzaileak	500 gutxi gorabehera
Taldeak	14
Gozoki-banaketa	500 Kg.
Ikatz-banaketa	100 Kg.

OLENTZERO AUZOETAN

Taldeak	23
---------	----

DONOSTIAKO AUZOETAKO JAIK

Festak unitateak kudeatu zituen jaiak egiteko behar ziren baimen eta udal zerbitzuak; gainera, azpiegitura jarri eta muntaketak koordinatu zituen, batzorde antolatzaileei eginkizunak errazteko asmoz.

JAIEIEN IZENAK	EGUNAK
ANTIGUO SAN SEBASTIAN	URTARRILAREN 15 - 25EAN
IBAETAKO JAIK	MARTXOAREN 1,6,7,8,9AN
TXANPONTXO JAIK	MAIATZAREN 13-17AN
MORLANS	MAIATZAREN 15,16,17AN
LARRATXOKO JAIK	MAIATZAREN 27TIK EKAINAREN 15ERA
ANTIGUAKO SAN JUANAK	EKAINAREN 12-23AN
HERRERAKO JAIK	EKAINAREN 6-24/18-23AN
AMARA BERRIKO FESTAK	EKAINAREN 19-21/23AN
ALTZAKO SAN MARTZIAL JAIK	EKAINAREN 20-21/27-30EAN
SAN PEDRO JAIK	EKAINAREN 21-23AN, UZTAILAREN 2AN
OLETAKO JAIK SAN JUANES	EKAINAREN 22-28AN
SAN JUAN JAIK INTXAURRONGO	EKAINAREN 23AN
KARMENGO JAIK (AMARA BERRI)	UZTAILAREN 10/16-19AN
AÑORGAKO JAIK	UZTAILAREN 11,12/15-19AN
KARMENGO JAIK (KAIA)	UZTAILAREN 15-19AN
ZIPOTZ JAIK	UZTAILAREN 16-19AN
SAN INAZIO JAIK	UZTAILAREN 18-31N
ZUBIETAKO HERRI JAIK	UZTAILAREN 24-31N
AMARAKO JAIK	UZTAILAREN 30ETIK ABUZTUAREN 2RA
LOIOLAKO SAN INAZIO JAIK	UZTAILAREN 30ETIK ABUZTUAREN 2RA
AÑORGA TXIKI	IRAILAREN 4 ETA 5EAN
FIESTAS DE TXOMIN ENEA	IRAILAREN 4TIK 6RA
JOLASTOKIETA	IRAILAREN 9TIK 13RA
INTXAURRONGO ZAHARREKO JAIK	IRAILAREN 10-14AN
AIETEKO JAIK	IRAILAREN 11TIK 14RA, 17TIK 20RA, 27AN
PORRONTXO JAIK	IRAILAREN 12AN, 14TIK 20RA
SAN FESTO	IRAILAREN 18TIK 20RA
UDAREN AMAIERA	IRAILAREN 18TIK 20RA
AMARA BERRIKO JAI HERRIKOIAK	URRIAREN 8TIK 12RA
MARTU JAIK	URRIAREN 9TIK 12RA

BESTE JARDUERA BATZUK

ETXE ERREGIONALEN JAIK

Jarduerak	7
-----------	---

BESTE LANKIDETZA BATZUK

77 Jarduerak

Besteak beste:

- Eskulanen azoka
- Casal de Catalunya – calÇotaden deboraldia
- Tango jaialdia - AGATA
- Liburu zahar eta berrien azokak
- Munduko arrozak
- Erdi Aroko Xacobeo azoka
- Lauarin jaialdia
- Gipuzkoako marinel zaharrei omenaldia
- AFAGI
- Igande Digitala
- Zipristin – Tamayo Pintura Lehiaketa
- Rallye histórico Vasco-Navarro
- Sagardo Apurua
- Arranparrilarien lehiaketa
- Txakolin Eguna
- Santa Ageda
- Zipristin argazki-lehiaketa
- Kanoa hawaiarren lehiaketa
-

Festak unitateak eginkizun hauek ditu jarduera horietan: kalean hainbat kolektibok eta elkartek proposatutako jarduerak egiteko behar diren baimenak kudeatzea, behar diren azpiegiturak jartzea eta muntaketa koordinatzea.

SENIDETZEAK

Marugame: Urteroko garaikur-trukea egin zen eskolarteko futbol-txapelketetarako.

Wiesbaden: Pilar Soberon artista donostiarraren *Aerolia's Park* brontzezko eskultura ezarri zen, hiriak erosi ondoren.

ESKERRAK BABESLEEI

Beste urte batez, eskerrak eman nahi dizkiegu honako marka hauei, berak gabe zenbait jarduera egin ezinik geratuko baikenen: Amstel, Coca Cola, Euskaltel, El Diario Vasco, Kutxa Gizarte Ekintza, Kutxabank, AFADE, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, Frigo eta Super Amara.